

Brusela, 1965-X-9

x

Agur :

Gaur joan da Santi, hemen hamar egun pasa ondoren. Atzo telegrama bat jaso zuen, emazteak ixtripu bat izan duela gaztiatuz.

Hunekin batera : Amerikari buruzko txostena (Agorrakoa), eta Ahmed'ekin hitzegindakoaren berri.

Nere ustez, Arjelia'n ez dago gauza haundirik egiterik. Orain beste txosten haundi bat presentatu behar dute (lehen ere beste bizpahiru presentatu ondoren). Uste dut, eta hala esan nion, horiek guziak aitzekiak dirala. Berak ere hortan dira, eta konturatu dira. Baiña irau egin nahi dute, ia gauzak papatean ontzen ote diran. Ez litzake harritzekoa izango, halere, handik ezer ez ateratzea azkenean. Ahmed'ek ez du oraindik lanik aurkitu (lau aldiz, eta lauetan kale azkenengo momentuan) ; eta Mohammed'ek bai, goizetan, baiña gutxi pagatua.

Ahmed'i ez zaio ongi iruditu berari ezer esan gabe, zuek hor Ameriketako kontua neri ematea. Halere, gauza ongi doalakoan, eta berek beren etorkizuna aidean ikusten dutelako, hemen segitzea erabaki dugu. Ni pozik ari naiz lan hori egiten. Baiña...

Baiña astirik gabe nabil. Eta dana nik egitea ez da komeni. Bestela gaizki egingo dut. Eta denontzat okerrago.

Manlius, esate baterako, norbaitek "elikatu" behar du. Paris nola gelditzen da ? Eta abar. Noiz doa Jeronimo Paris'a ?

Nik, noski, esandakoari eutsiko diot ; eta orain bezela segiko dut. Baiña Arjel, Paris eta Londres ezin ditzaket neuk har. Ni gertu naiz Ameriketako gauzarekin jarraitzeko ; baiña Paris, Arjel eta Londres bestek hartzea nahiago nuke.

Paris'en, bestalde (Jeronimo, Tomas, Balduino, Simoñ) eki-po on bat egin diteke, nere ustez. Zutik berek ateratzea ona da. Baiña Arjel'ek ez du ezer ; nahiz Santi'k egun osoa libre izan, eta Pierre'k egun erdia. Zer iruditzen zaizue ?

Ba da besterik ere. Dakizuten bezela, "Branka" intelektual-aldizkaria (ETA'ren eskuetan eta ETA'ren zerbitzuko zeharka) nere eskuetan dago ; eta aldizkari bat sortzea eta joan-araztea, ez da ordu-laurden batean egiten... Hau, ordea, Santi'rekin hitzeginda ere, nere eskuetan gelditzen da arras. Eta ni pozik! Baiña denbora gutxi dut !!

Zergatik ez duzute hau piska bat aztertzen, eta Santi'rekin hitzegin duguna ere bai ; eta ia zer iruditzen zaizuen ? NIK, dana dala, FEDERAZIOAREN GORABEHERAK GUZTIZ ERABAKI ARTE, ORAIN BEZELA SEGIKO DUT. EZ DUT EZER ALDATUKO DANOK ALKARRADITU ARTE.

Hemengo "Panorama"k ("Paris-Match"en maillakoa, 900.000 ale) lagundu egin nahi gaitu. ARGAZKI ONAK BEHAR DITU BAKARRIK !!! Kristian en foto ON bat eskatu dit ("Enbata"tik ateratzeko zailla omen da). Fotoak bidaltzen badituzte, egundoko erreportajea argitaratuko digute. EG'koei horrialde oso bat egin diete berriki (jasoko duzute alae bat) Gauza bera Enbata'koei *(esaiante, alegia, nahi duten)*

Zertan Kristian ? TELEGRAMA BAT BIDALDU, eta gafiñerakoa gure eskuetan. Noiz hasi dan "greba" egiten : xehetasun hau aski da.

Alejandro'ren ondotik, nehor ez ? Harrigarria !
Goraintzi denoi.